## PROGRAMAREN DATU OROKORRAK

**Departamentua:** 05 - EKONOMIA SUSTAPENEKO ETA PROIEKTU ESTRATEGIKOETAKO
**Atala:** 0520 - Berrikuntzako Zuzendaritza Nagusia
**Programa:** 210 - Enpresa berrikuntza
**Funtzionala:** 422 - Industria

**Programa mota:**

Finalista

**Misioa:**

Gipuzkoako enpresa-sarearen lehiakortasuna indartzea, enpresak eraldaketa-prozesuan lagunduz, enpresa aurreratu, erresiliente eta iraunkor baten eredurantz. Eredu horrek berrikuntza teknologikoa integratu behar du, hiru trantsizio nagusiei aurre egiteko palanka gisa: digital-teknologikoa, ekologikoa eta soziala. Eraldaketa hori funtsezkoa da ekonomia dinamikoago, berritzaileago eta kalitatezko enplegua sortzen duen bat bultzatzeko.

Espezializazio adimentsuaren aldeko apustua mantendu eta sakondu, Gipuzkoa jada erreferente den arloetan hala nola mugikortasun iraunkorra, zibersegurtasuna edo gastronomia eta elikadura iraunkorra, eta aldi berean esploratu adimen artifiziala, konputazio kuantikoa edo bioingeniaritza bezalako aukera berriak. Apustu horiek lurraldearen gaitasunen arabera egokitu behar dira, balio erantsia eta lehiarako abantaila iraunkorrak sortzeko helburuarekin, tokiko talentua eta sare globalekin konektatutako ekosistema baten bidez.

Talentua sortzeko, errotzeko eta aktibatzeko estrategia integral bat garatzea, pertsonen eta enpresen benetako beharretara egokitua, garapen inklusibo eta kohesionatu bat sustatzeko. Estrategia honek genero-berdintasunari, hizkuntza-berdintasunari eta inklusibitateari arreta berezia eskaini behar die, ekonomia bidezkoago, anitzago eta gizartearekiko konprometituago bat bermatzeko funtsezko elementu gisa.

**Egoeraren diagnostikoa:**

Gipuzkoako hazkunde ekonomikoa, 2025ean, % 2,3koa izan zen, eta bosgarren urtez jarraian gertatu zen. Emaitza hori 2024an erregistratutakoa baino handiagoa da (+%2,1), eta hasierako aurreikuspenen gainetik dago.
Hazkundearen eragilea barne-eskaria izan da, batez ere etxeetako kontsumoa eta inbertsioa; kanpo-sektoreak, berriz, bultzada kendu zuen Europako merkataritza-bazkideen ahultasunagatik eta muga-zergen tentsioengatik, esportazioak-%3,6 jaitsi baitziren. Sektoreka, eraikuntzak (+%3,7) eta zerbitzuek (+%2,8) indar handiagoa erakutsi zuten, eta industriak hazkunde oso apala izan zuen, +%0,4 (+%0,3 manufaktura-industria). Adegik 2026ko otsailean Gipuzkoari buruz egindako koiuntura ekonomikoaren txostenak "dualtasun ekonomikoa" adierazten du: lurralde osoa sendotasunez aurrera doan bitartean, industria atzeraldira agertzen da, Europako merkatuen ahuleziak eta ziurgabetasun geopolitiko eta komertzial gero eta handiagoak eraginda. Enpresen kezka nagusiak langile kualifikatuen falta, absentismoa, lan-kostuen hazkundea eta errentagarritasun txikia dira oraindik ere, eta faktore horiek Gipuzkoako enpresa berritzaile askoren hazteko aukerak mugatzen dituzte.
Enpleguari dagokionez, lanaldi osoko lanpostu baliokideetan neurtuta, 2025ean hazkundea +%1,4 izan zen, hau da, aurreko urtearen aldean 3.673 lanpostu garbi sortu ziren. Enpleguaren hazkundea zerbitzuen sektorean (+%1,6) eta eraikuntzan (+%2,5) kontzentratu zen; industriako enpleguak, berriz, apenas egin zuen gora (+%0,2).
Laburbilduz, 2025erako aurreikuspenak funtsean bete ziren BPGren % 2,3ko hazkundea, % 2,1eko aurreikuspena ere gaindituz, barne-kontsumoa eta inbertsioa motor nagusi zirela , nahiz eta kanpo-sektoreak eta industriak itxaropenak zapuztu zituzten: esportazioek % 3,6 egin zuten behera, eta manufaktura-industriak % 0,3 baino ez zuen gora egin, aurrera doan lurralde baten eta industria geldi baten arteko dualtasun ekonomikoa berretsiz.
2026rako aurreikuspenen arabera, BPGren % 2 inguruko hazkundea izango da Gipuzkoan. Gipuzkoako BPGa urte arteko % 2,0 hazi zen 2026ko lehen hiruhilekoan (hiruhileko artean % 0,4), Eustaten arabera. Lurraldeak 23 hilabetez jarraian egin du gora, baina aurreko hiruhilekoen aldean moteldu egin da. Enplegua % 1,1 hazi zen urte artean (3.489 lanpostu berri). Lurraldeka, Arabak % 2,2 egin zuen aurrera, Bizkaiak % 2,3 eta EAEk % 2,3. Zerbitzuak dira hazkunderako ekarpen handiena egiten dutenak, nazioarteko aldakortasunaren arrisku txikiena dutenak; industriak, berriz, kanpoko eskariaren ahultasuna du.
Hala ere, egoerak arrisku nabarmenak ditu: enpresek lan-kostuen igoeraz, marjinen murrizketaz,

talentu kualifikatua erakartzeko zailtasunaz eta gero eta erregulazio-karga handiagoaz ohartarazten dute. Mundu mailan, Nazioarteko Diru Funtsak munduko hazkundearen aurreikuspena % 3,1era jaitsi du 2026an (urtarrileko % 3,3aren aldean), Ekialde Ertaineko gerraren eztandaren ondorioz, ziurgabetasun geopolitikoak gora egin baitu eta energia-prezioek gora egin baitute.
BBVA Research bezalako aurreikuspen batzuek % 2,1era jaitsi dute 2027rako aurreikuspena, energiaren prezioengatik.

**Beharraren deskribapen xehatua:**

2023ko Regional Innovation Scoreboard-ak Euskadi Europako eskualde berritzaileenen artean kokatu zuen, Strong Innovators taldean, eta 2024an posizio hori mantendu du, 0,616ko puntuazioarekin, EB-27ko batez bestekoaren %111,5a izanik. Gipuzkoak ekarpen esanguratsua egin du posizionamendu horretan, eskualde mailako berrikuntzaren motor gisa duen rola sendotuz.

Gipuzkoaren lehiakortasuna bereziki enpresa ertain eta handien berrikuntza-maila altuetan oinarritzen da. Hala ere, erronka nagusietako bat da enpresa txikien berrikuntza-gaitasuna hobetzea, haien indizeak baxuagoak baitira, nahiz eta funtsezko eginkizuna duten tokiko ehun ekonomikoan. Testuinguru honetan, ez da bideragarria lehiakortasuna kostuetan soilik oinarritzea. Ziurgabetasun geopolitikoak eta merkatu tradizionalen motelaldiek eskatzen dute balio erantsi handiagoko produktu eta zerbitzuen bidez lehiakortasuna indartzea, berrikuntzaren bidez bultzatuta.

Horretarako, lehentasunezkoa da ETEen eraldaketa digitala eta berrikuntza teknologikoa sustatzea, eta Gipuzkoak dagoeneko gaitasun sendotuak dituen sektore estrategikoetan apustu egiten jarraitzea, hala nola mugikortasun iraunkorra (MUBIL), zibersegurtasuna (ZIUR) eta gastronomia eta elikadura iraunkorraren balio-katea. Era berean, potentzial handiko eremu berrietan apustu berriak egiten ari dira, hala nola konputazio kuantikoa (Quantum), lehiakortasun-abantaila bereizgarriak eta kalitatezko enplegua sortzeko aukera ematen dutenak.

**Nori zuzendua:**

Enpresak (enpresa handiak, enpresa txikiak, ETEak, irabazi asmorik gabeko erakundeak,...) eta herritarrak.

**Programaren estrategia.**

**1. Baliabideak (inputak):**

Langileak. Baliabide ekonomikoak. Laguntza teknikoak.

**2. Garatu beharreko jarduerak/prozesuak:**

Inbertsioa sustatzeko eta fabrikazio aurreratuaren merkatura bideratutako teknologiak eta produktuak garatzeko programak, bai eta erakustaldi teknologikoko proiektuak eta diagnostikoak garatzeko programak ere, Industria 4.0 kontzeptuaren errealitatea ETEetara hurbiltzeko.
Gipuzkoako pertsona eta enpresen beharrizanekin bat datorren sorkuntza eta sustraitzearen aldeko estrategia sustatzea eta garatzea.
Gipuzkoako ekonomiarako jarduera estrategikoak bultzatzea.

**3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):**

I+G proiektuen garapena produktu eta prozesu berriak sortzeko.
Teknologia aurreratuen ezarpena enpresen lehiakortasunarekin talka egin dezaten.
Garapen teknologiko berrien merkaturatzea azkartu.
Hobeto formatutako pertsonak. Kalitatezko enplegua.

**Programaren arau esparrua:**

3/2007 FORU ARAUA, martxoaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru-laguntzei buruzkoa (GAO, 2007ko apirilaren 12koa).
24/2008 FORU DEKRETUA, apirilaren 29koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Diru-laguntzei buruzko Foru Arauaren Erregelamendua onartzen duena (GAO, 2008ko maiatzaren 6koa)
4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa
1/2022 Legea, martxoaren 3koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarrenez aldatzen duena (EAE)
2/2015 Foru Araua, martxoaren 9koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa

## 2024-2027 KUDEAKETA PLAN ESTRATEGIKOARI LOTUTAKO DEPARTAMENTU JARDUKETA

**Urteko helburua:** Gaitasun eta aukera lehiakorrak sustatzea sektore ekonomikoak sendotuz edota eraldatuz eta berriak bultzatuz.

| Adierazlea | Neurri-unitatea | Helburu mota | Azken balioa | Aurtengo aurreikuspena | Urteko helburua | Agintaldiko helburua |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Foru Aldundiak sustatutako berrikuntza proiektuetan onuradun diren ETEei emandako laguntzen zenbatekoa eurotan (%) | Ehunekoa | >= | 87,00 | 87,00 | 85,00 | 85,00 |
| Foru Aldundiaren proiektu estrategikoen esparruan sortutako edo bizkortutako enpresak | Kopurua | >= | 11,00 | 11,00 | 20,00 | 20,00 |

### Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak

**1. Ekintza lerroa:**
Enpresa ehunaren lehiakortasuna sustatzen jarraitzea, berrikuntza, ezagutza aurreratua eta balio erantsia ardatz hartuta, lurraldearen, ingurumenaren eta gizartearen beharrei eta erronkei erantzun egokia emateko.



% 45,35



% 54,60



% 0,05

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Ekintza lerroa, guztira** | **5.450.411,15** | **1.465.000,00** | | **2027/01/01** | **2028/12/31** | |
| **1.1 Ekintza**<br>Enpresaren berrikuntza, eraldaketa digitala eta Industria 4.0 sustatzea | 3.439.259,85 | 900.000,00 | | 2027/01/01 | 2028/12/31 | |
| **1.2 Ekintza**<br>Sektore estrategikoetan jarduketak sustatzea, 4.0 industriaren teknologiak bultzatuz: Elektromugikortasuna | 1.535.026,20 | 465.000,00 | | 2027/01/01 | 2028/12/31 | |
| **1.3 Ekintza**<br>Sektore estrategikoetan jarduketak sustatzea, 4.0 industriaren teknologiak bultzatuz: Zibersegurtasuna | 472.513,10 | 100.000,00 | | 2027/01/01 | 2028/12/31 | |
| **1.4 Ekintza**<br>Hizkuntza-inpaktu handiko kontratu edo dirulaguntzetan hizkuntza-klausula berrituak sartzea | 3.612,00 | | | 2027/01/01 | 2027/12/31 | |

**2. Ekintza lerroa:**
ETEen lehiakortasuna bultzatzeko beharrezkoak diren trantsizioak bultzatzea.



% 14,38



% 35,33



% 22,79



% 27,50

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Ekintza lerroa, guztira** | **2.189.670,77** | **710.000,00** | | **2027/01/01** | **2028/12/31** | |
| **2.1 Ekintza**<br>Eragile sozioekonomikoekin batera lan egitea, bereziki Eskualdeko Garapen Agentziekin, enpresa txikienak berrikuntza teknologikora eta eraldaketa digitalera hurbiltzeko. | 1.345.026,20 | 250.000,00 | | 2027/01/01 | 2028/12/31 | |
| **2.2 Ekintza**<br>Lurraldeko enpresa-sarean talentua erakartzeko estrategiak bultzatzea. | 582.644,57 | 460.000,00 | | 2027/01/01 | 2028/12/31 | |
| **2.3 Ekintza**<br>Talentua ekoizpen-eredu berrietara egokitzeko gaitasunen prestakuntza sustatzea, bereziki gaitasun teknologikoak, Gipuzkoako enpresetan lehiakortasuna indartzeko. | 262.000,00 | | | 2027/01/01 | 2027/12/31 | |

**Urteko helburua:** Gipuzkoak elikadura sistema jasangarria, osasungarria, eskuragarria eta lehiakorra izango du, tokiko ekoizpenaren potentziala maximizatuko duena eta kontsumo arduratsua sustatuko duena, lurraldearen kultura eta nortasuna proiektatuz.

| Adierazlea | Neurri-unitatea | Helburu mota | Azken balioa | Aurtengo aurreikuspena | Urteko helburua | Agintaldiko helburua |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Baserritar misto profesionalak programan parte hartzen duten baserritarrak | Kopurua | >= | 15,00 | 15,00 | 15,00 | 15,00 |

**Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak**

**1. Ekintza lerroa:**
Elikagai eta gastronomia industrien lehiakortasuna sustatzea.



% 30,00



% 70,00

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Ekintza lerroa, guztira** | **542.513,10** | **155.000,00** | | **2027/01/01** | **2028/12/31** | |
| **1.1 Ekintza** | | | | | | |

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Sektore estrategikoetan jarduketak sustatzea, 4.0 industriaren teknologiak bultzatuz: Gastronomia | 542.513,10 | 155.000,00 | | 2027/01/01 | 2028/12/31 | |

## GENERO BERDINTASUNA

**Programaren genero garrantzia:** Handia

**Programak ukitzen duen kolektiboa:**

Pertsona helduak

**Programak ukitutako gaitasuna(k):**

Ordaindutako lan bat egitea baldintza egokietan

**Beharraren deskribapen xehatua:**

2025ean, Euskadiko biztanleria aktiboaren % 48,5 emakumeak ziren, urteko sexuaren araberako banakapenari dagokionez eskuragarri dagoen daturik berriena. 2026ko lehen hiruhilekoan, emakumeen okupazio-tasa (16-64 urte) % 69,1ekoa izan zen, eta gizonena, berriz, % 73,9koa. Jaitsiera hori nabarmenagoa izan zen emakumeen artean (-0,7 puntu) gizonen artean (-0,2 puntu) baino. Emakumeen langabezia-tasa % 6,9ra igo zen (+0,4 puntu aurreko hiruhilekoarekin alderatuta) eta gizonena % 6,6ra (+0,6 puntu), EAEn langabeziak gora egin zuen testuinguru orokor batean ( % 6,2tik % 6,7ra), Gabonetako kanpainaren ondoren eta Ekialde Hurbileko gatazkak eragindako ziurgabetasunaren hasieran iraungitako kontratuei lotuta. Hiruhileko gorakada hori gorabehera, urte arteko alderaketak positiboa izaten jarraitzen du: guztizko okupazioa % 1,9 hazi da 2025eko lehen hiruhilekoaren aldean, ia osorik zerbitzuek eta, neurri txikiagoan, eraikuntzak bultzatuta; industriak, aldiz, enplegua galdu du.
Enpleguaren sektore-banaketak alde nabarmenak erakusten jarraitzen du generoaren arabera. Emakume landunen % 87,5ek zerbitzuen sektorean lan egiten du, eta guztizko enpleguaren % 59,9 dira. Gainerako sektoreetan presentzia txikia du: % 20,9 industrian, % 15,5 eraikuntzan eta % 13,0 lehen sektorean.
Genero Berdintasunaren Indizeari dagokionez, Eustatek Genero Berdintasunaren Europako Institutuaren (EIGE) metodologia berrituan oinarritutako edizio berri bat argitaratu du 2026an, eta Euskadik 66 puntu lortu ditu 100etik 2020an baino bi puntu gehiago . Zifra hori ezin da zuzenean aurrekoarekin alderatu (74,5, 2021eko datua, 31 adierazleren aurretiazko metodologia), edizio berriak indizea 27 adierazlera murrizten baitu eta dimentsioen egitura aldatzen baitu. Egungo neurriarekin, Euskadi EB-27ko batez bestekoa (63,4) baino 2,6 puntu gorago dago, baina Estatuko batez bestekoa (70,9) baino 4,9 puntu beherago. Osasunaren arloa da balorazio onena jaso duena (86,3 puntu), eta denborarena, berriz, desorekatuena da oraindik (62,5 puntu): emakumeek gizonek baino ia bi aldiz denbora gehiago ematen dute adingabeak eta mendeko pertsonak zaintzen, eta erdiak baino gehiagok 10 ordu baino gehiago astean etxeko lanetan, gizonen herenak baino gehiago. Botere-posizioetarako sarbidean ere desberdintasun nabarmenak daude: 50,2 puntu botere ekonomikoan eta 47,4 gizarte-boterean, hauteskunde-zerrenden erregulazioari esker botere politikoan lortutako 73,7 puntuen aldean. (Edizio berriak ez du, oraingoz, lurralde historikoen araberako banakapenik eskaintzen)

| | | |
|---|---|---|
| **Kuantifikazioa:** | 0,00 | ( % 0,00 ) |
| **Ordainketa kredituak:** | 0,00 | ( % 0,00 ) |
| **Datozen urteetako gastuak:** | 0,00 | ( % 0,00 ) |

## HIZKUNTZA BERDINTASUNEKO PLANA

**Beharraren deskribapen xehatua:**

Dirulaguntza eskatzaileekin lehenetsi harremana euskaraz izatea

| Kategoria | Nola |
|---|---|
| 6.- Hizkuntza-klausulak | 6.- Hizkuntza-klausulak |
| | |

## GJH

**Beharraren deskribapen xehatua:**

- Enplegu duina eta giza hazkundea sortzea, hazkunde ekonomiko jasangarria sustatuz produktibitate-mailak eta berrikuntza teknologikoa areagotuz, eta, era berean, enpresa-espiritua eta kalitatezko enplegua sortzeko politikak sustatuz, desberdintasun sozialak murriztea ahalbidetuz.
- Industriari laguntzea hazkundearen eta garapen ekonomikoaren funtsezko eragile gisa, eta, aldi berean, ekonomia- eta ingurumen-erronkei irtenbide iraunkorrak aurkitzen laguntzea, bai eta enplegu berriak eskaintzea eta energia-eraginkortasuna sustatzea ere.
- Hori guztia Etorkizuna eraikizek bultzatutako elkarlaneko gobernantzaren kontzeptuaren esparruan, politika publikoen diseinua eta eraginkortasuna hobetzeko.

**Kuantifikazioa:** 10.512.595,02 ( % 100,00 )

## Programari lotutako GJH zerrenda

| GJH, Helburu eta Ekintza lerroak | | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak |
|---|---|---|---|
| 4 KALITATEZKO HEZKUNTZA | 4-Kalitatezko hezkuntza<br><br>Guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea. | **233.057,83** | **184.000,00** |
| **Helburua** | 4.4 - 2030. urterako, gizon eta emakume guztiek kalitatezko prestakuntza tekniko, profesional eta goi-mailakoa eskuratzeko berdintasunezko sarbidea dutela ziurtatzea, unibertsitate-irakaskuntzakoa barne | 233.057,83 | 184.000,00 |
| | **Ekintza lerroak** | | |
| | ETEen lehiakortasuna bultzatzeko beharrezkoak diren trantsizioak bultzatzea. | 233.057,83 | 184.000,00 |
| 8 LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA | 8-Lan duina eta hazkunde ekonomikoa<br><br>Guztiontzako hazkunde ekonomiko jarraitua, inklusiboa eta jasangarria, enplegu betea eta produktiboa nahiz lan duina sustatzea. | **3.163.638,67** | **996.600,00** |
| **Helburua** | 8.02 - Produktibitate ekonomikoaren maila handiagoak lortzea, dibertsifikazioaren, modernizazio teknologikoaren eta berrikuntzaren bidez, besteak beste, balio erantsi handia duten eta eskulan asko erabiltzen duten sektoreei arreta eskainiz. | 2.814.051,93 | 720.600,00 |
| | **Ekintza lerroak** | | |
| | Enpresa ehunaren lehiakortasuna sustatzen jarraitzea, berrikuntza, ezagutza aurreratua eta balio erantsia ardatz hartuta, lurraldearen, ingurumenaren eta gizartearen beharrei eta erronkei erantzun egokia emateko. | 2.477.795,38 | 658.100,00 |
| | ETEen lehiakortasuna bultzatzeko beharrezkoak diren trantsizioak bultzatzea. | 336.256,55 | 62.500,00 |
| **Helburua** | 8.05 - 2030. urterako, enplegu osoa eta produktiboa eta lan egokia lortzea emakume eta gizon guztientzat, gazteak eta desgaitasunen bat dutenak barne; eta balio bereko lanarengatik soldata berdina eman dadila lortzea | 349.586,74 | 276.000,00 |
| | **Ekintza lerroak** | | |
| | ETEen lehiakortasuna bultzatzeko beharrezkoak diren trantsizioak bultzatzea. | 349.586,74 | 276.000,00 |

| GJH, Helburu eta Ekintza lerroak | | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak |
|---|---|---|---|
|  | 9-Industria berrikuntza eta azpiegiturak<br><br>Azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusiboa eta jasangarria bultzatzea, eta berrikuntza sustatzea. | **3.730.014,25** | **915.900,00** |
| **Helburua** | 9.4 - 2030. urterako, azpiegiturak modernizatzea eta industriak eraldatzea, jasangarriak izan daitezen. Horretarako, eraginkortasun handiagoko baliabideak erabili behar dira eta teknologia- eta industria-prozesu garbiak eta ingurumenaren ikuspegitik arrazoizkoak erabiltzen direla bermatu behar da, eta herrialde guztiek dagozkien ahalmenen araberako neurriak har ditzatela lortu behar da | 669.312,58 | 199.950,00 |
| | **Ekintza lerroak** | | |
| | Enpresa ehunaren lehiakortasuna sustatzen jarraitzea, berrikuntza, ezagutza aurreratua eta balio erantsia ardatz hartuta, lurraldearen, ingurumenaren eta gizartearen beharrei eta erronkei erantzun egokia emateko. | 506.558,65 | 153.450,00 |
| | Elikagai eta gastronomia industrien lehiakortasuna sustatzea. | 162.753,93 | 46.500,00 |
| **Helburua** | 9.5 - Ikerketa zientifikoa areagotzea eta herrialde guztietako industria-sektoreen ahalmen teknologikoa hobetzea, bereziki garapen-bidean dauden herrialdeetan. Horretarako, berrikuntza sustatu behar da eta nabarmen areagotu behar da, hemendik 2030era, ikerketan eta garapenean lan egiten duten pertsonen kopurua (milioi biztanletik), baita sektore publikoek eta pribatuek ikerketan eta garapenean egiten duten gastua ere | 3.060.701,67 | 715.950,00 |
| | **Ekintza lerroak** | | |
| | Enpresa ehunaren lehiakortasuna sustatzen jarraitzea, berrikuntza, ezagutza aurreratua eta balio erantsia ardatz hartuta, lurraldearen, ingurumenaren eta gizartearen beharrei eta erronkei erantzun egokia emateko. | 2.462.445,12 | 653.450,00 |
| | ETEen lehiakortasuna bultzatzeko beharrezkoak diren trantsizioak bultzatzea. | 598.256,55 | 62.500,00 |
|  | 12-Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak<br><br>Kontsumo eta ekoizpen modalitate jasangarriak bermatzea. | **379.759,17** | **108.500,00** |
| **Helburua** | 12.3 - 2030. urterako, Gipuzkoako elikagaien per capita hondakinak murriztea, txikizkako salmentan eta kontsumitzaileen mailan, eta ekoizpen- eta hornidura-kateetako elikagaien galerak murriztea, uztaren ondorengo galerak barne. | 379.759,17 | 108.500,00 |
| | **Ekintza lerroak** | | |
| | Elikagai eta gastronomia industrien lehiakortasuna sustatzea. | 379.759,17 | 108.500,00 |
|  | 17-Helburuak lortzeko aliantza<br><br>Ezarpen-baliabideak sendotzea eta Garapen Jasangarrirako Munduko Ituna biziberritzea. | **672.513,10** | **125.000,00** |
| **Helburua** | 17.17 - Arlo publikoan, publiko-pribatuan eta gizarte zibilean aliantza eraginkorrak sor daitezen sustatzea, aliantzen baliabideak lortzeko estrategiak eta esperientzia baliatuz. | 672.513,10 | 125.000,00 |
| | | | |

| GJH, Helburu eta Ekintza lerroak | | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak |
|---|---|---|---|
| | **Ekintza lerroak** | | |
| | ETEen lehiakortasuna bultzatzeko beharrezkoak diren trantsizioak bultzatzea. | 672.513,10 | 125.000,00 |
|  | 18-kultura eta hizkuntza aniztasuna<br><br>Kultura eta hizkuntza aniztasuna | **3.612,00** | |
| **Helburua** | 18.1 - Hizkuntza eta kultura guztien presentzia eta errekonozimendua bermatzea, garapen pertsonal eta sozialerako ezinbesteko faktore gisa | 3.612,00 | |
| | **Ekintza lerroak** | | |
| | Enpresa ehunaren lehiakortasuna sustatzen jarraitzea, berrikuntza, ezagutza aurreratua eta balio erantsia ardatz hartuta, lurraldearen, ingurumenaren eta gizartearen beharrei eta erronkei erantzun egokia emateko. | 3.612,00 | |
| **Guztira** | | **8.182.595,02** | **2.330.000,00** |

## Programaren aurrekontuaren laburpena / Resumen del Presupuesto del Programa

| Gastuen kapituluak / Capítulos gastos | 2026 | 2027 | Datozen urteetako gastuak/Gastos Futuros | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 2028 | 2029 | 2030 | 2031 eta hurrengoak/ 2031 y siguientes | Guztira / Total |
| 1. LANGILERIA GASTUAK GASTOS DE PERSONAL | 413.609,00 | 431.131,00 | | | | | |
| 2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS | 300.000,00 | 300.000,00 | | | | | |
| 3. FINANTZA GASTUAK GASTOS FINANCIEROS | | | | | | | |
| 4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES | 3.444.666,00 | 3.352.000,00 | 790.000,00 | | | | 790.000,00 |
| 5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS | | | | | | | |
| **Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes** | **4.158.275,00** | **4.083.131,00** | **790.000,00** | | | | **790.000,00** |
| 6. INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES | | | | | | | |
| 7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL | 3.530.000,00 | 4.099.464,00 | 1.540.000,00 | | | | 1.540.000,00 |
| **Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital** | **3.530.000,00** | **4.099.464,00** | **1.540.000,00** | | | | **1.540.000,00** |
| 8. AKTIBO FINANTZARIOAK ACTIVOS FINANCIEROS | | | | | | | |
| 9. PASIBO FINANTZARIOAK PASIVOS FINANCIEROS | | | | | | | |
| **Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras** | | | | | | | |
| **Guztira / Total** | **7.688.275,00** | **8.182.595,00** | **2.330.000,00** | | | | **2.330.000,00** |

| Planen zenbateko osoa, kapituluka / Total planes/capitulos | Ordainketa kredituak / Créditos de pago | | Datozen urteetako gastuak / Gastos futuros | | Guztira / Total | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Estrategikoa / Estratégico | Operatiboa / Operativo | Estrategikoa / Estratégico | Operatiboa / Operativo | Estrategikoa / Estratégico | Operatiboa / Operativo |
| 1. LANGILERIA GASTUAK<br>GASTOS DE PERSONAL | 431.131,02 | | | | 431.131,02 | |
| 2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK<br>GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS | 300.000,00 | | | | 300.000,00 | |
| 3. FINANTZA GASTUAK<br>GASTOS FINANCIEROS | | | | | | |
| 4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK<br>TRANSFERENCIAS CORRIENTES | 3.352.000,00 | | 790.000,00 | | 4.142.000,00 | |
| 5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA<br>FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS | | | | | | |
| **Eragiketa arruntak, guztira<br>Total operaciones corrientes** | **4.083.131,02** | | **790.000,00** | | **4.873.131,02** | |
| 6. INBERTSIO ERREALAK<br>INVERSIONES REALES | | | | | | |
| 7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK<br>TRANSFERENCIAS DE CAPITAL | 4.099.464,00 | | 1.540.000,00 | | 5.639.464,00 | |
| **Kapitaleko eragiketak, guztira<br>Total operaciones de capital** | **4.099.464,00** | | **1.540.000,00** | | **5.639.464,00** | |
| 8. AKTIBO FINANTZARIOAK<br>ACTIVOS FINANCIEROS | | | | | | |
| 9. PASIBO FINANTZARIOAK<br>PASIVOS FINANCIEROS | | | | | | |
| **Finantza eragiketak, guztira<br>Total operaciones financieras** | | | | | | |
| **Guztira / Total** | **8.182.595,02** | | **2.330.000,00** | | **10.512.595,02** | |

| Sarreren kapituluak / Capítulos de ingresos | 2026 | 2027 | Gastuari lotutakoak / Afectados a gasto |
|---|---|---|---|
| 1. ZUZENEKO ZERGAK<br>IMPUESTOS DIRECTOS | | | |
| 2. ZEHARKAKO ZERGAK<br>IMPUESTOS INDIRECTOS | | | |
| 3. TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK<br>TASAS Y OTROS INGRESOS | | | |
| 4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK<br>TRANSFERENCIAS CORRIENTES | 12.000,00 | | |
| 5. ONDARE SARRERAK<br>INGRESOS PATRIMONIALES | | | |
| **Eragiketa arruntak, guztira<br>Total operaciones corrientes** | **12.000,00** | | |
| 6. INBERTSIO ERREALAK BESTERENTZEA<br>ENAJENACION DE INVERSIONES REALES | | | |
| 7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK<br>TRANSFERENCIAS DE CAPITAL | | | |
| **Kapitaleko eragiketak, guztira<br>Total operaciones de capital** | | | |
| 8. AKTIKO FINANTZARIOAK<br>ACTIVOS FINANCIEROS | | | |
| 9. PASIBO FINANTZARIOAK<br>PASIVOS FINANCIEROS | | | |
| **Finantza eragiketak, guztira<br>Total operaciones financieras** | | | |
| **Guztira / Total** | **12.000,00** | | |